

MENDIA GERTUAGO LASAIAGOA ETA JASANGARRIAGOA

Urkiola da ale honen azaleko protagonista, eta parke naturalean proposaturiko ibilbideek, garraio publikoa erabiliz, mendira gerturatzeko beste modu bat mahai-gaineratu nahi dute, lasaiagoa eta jasangarriagoa. Europako hainbat parketara hurbiltzeko modua gogorarazten digute, eta hainbat mendizale aitzindarien garaietara garamatza.

Beste aukerarik ez dugula esango duenik ere izango da: gertuko mendiak presarik gabe eta etxetik hurbil dauden hormak. Covid-19aren eraginez sorturiko mugikortasun murrizketek gure helburuengan mugak ezarri dizkigute, eta ondorioz moldatu beharra izan dugu ezinbestean. Halere, guztia ez da kalterako izan.

Adibidez, herri mailako konfinamentuari esker, hurbilen ditugun tontor eta paretetara hurbildu gara, kasu batzuetan lehenengo aldiz. Nahiz eta askotan maila altuko tontorrek izan ez arren, besteak beste, gailurrerako ibilbidearen edertasunaz eta buzoiaren kontzeptuaz ohartzeko aukera eman digute, edota eguzkiak aurpegia berotzen digun bitartean bidez gozatu dugu, hain ezagunak egiten zaizkigun auzoak garaiera ezberdinetatik ikusteko aukera eskainiz.

Honetaz gain, presak alde batetara utzi ditugu, eta ibilbidean zehar dauden baserri eta baratza txukunez, iraganeko guden lekuko diren garai bateko baseliza abandonatuez, ezezagunak egiten zaizkigun zuhaitzez, belarrek estaliriko bidexkez edo iltze zaharrak ezkututzen dituzten hormez ohartu gara, besteak beste.

Mendira joaten garen gehiengoak aspaldiko bidexka, ertz edo eskalada bideak jarraitzen ditugu. Aitzindariak izan ziren mendizaleek zuten jarrerarengandik ikastea egokitu zaigu. Garai batean zituzten aukera, tresneria, mugikortasun eta informazioaz jabetzea hausnarketa on bat izan daiteke. Orduko mendizaleen izaera eta ausardiak hainbat muga eta oztopo gainditzen zituzten, gainera ingurunearekiko begirune handiagoz.

Egun, gure mendiko jardueren trantsizio aro bat bizitzen ari garen honetan, ekaitzaren osteko barealdiaren zain emeki egotea egokitu zaigu, zeru urdinarren esperoan egitasmo edo proiektu berriak izan arte. Honetarako ere baditugu proposamenak ale honetan. Bitartean, presarik gabe ibili gaitezen, inguruan ditugun bide berri eta baliabide naturalaz jabetuz eta berauek zainduz. Geurea babestu dezagun, ezagutuz eta maitatuz has gaitezen beraz.

DIRECTORA DE
PYRENAICAPYRENAICA
ALDIZKARIAREN
ZUZENDARIA

Luisa Alonso Cires

MONTAÑA MÁS CERCANA, PAUSADA Y SOSTENIBLE

Urkiola protagoniza la portada de este número y las travesías que se proponen dentro del parque natural, gestionando el acercamiento en transporte público, quieren plantear otra manera de ir a la montaña, más pausada y sostenible, que nos recuerda la forma de acercamiento en otros conocidos parques de montaña europeos y nos traslada a la época de los pioneros y pioneras.

Habrà quien diga que no nos queda otra: montañas cercanas y sin prisas, paredes a pocos kilómetros de casa. Las restricciones de movilidad que se han impuesto a causa de la epidemia del covid-19 han introducido limitaciones en nuestros objetivos montañosos, a las que hemos tenido que adaptarnos involuntariamente. Pero también han traído cosas positivas.

Por ejemplo, gracias al confinamiento en el municipio, nos hemos acercado, a veces por primera vez, a las cimas y paredes que tenemos al lado. Y, a pesar de que en algunos casos no pasan de la categoría de tontorra o tachuela, hemos apreciado como nunca la ruta a la cumbre y el descubrimiento del buzón, el avance por la vía mientras nos daba el sol en la cara, y la sorpresa de visualizar los barrios conocidos desde una perspectiva de altura. Y nos hemos olvidado de las prisas, descubriendo caseríos y huertos bien cuidados, ermitas abandonadas, huellas de pasadas guerras, árboles que desconocemos, senderos borrados por las hierbas y paredes que escondían viejas clavijas.

La mayoría de quienes vamos a la montaña lo hacemos siguiendo sendas, cresteríos o vías descubiertos hace mucho tiempo. Y nos toca aprender de aquellas personas y de su espíritu montañoso. Es un buen ejercicio recordar cómo se movían, qué equipos llevaban, cómo se habían acercado hasta el punto de inicio, qué información llevaban. Aquella gente tenía un carácter y una determinación a prueba de obstáculos y limitaciones, y se movían por las montañas de manera más respetuosa con el medioambiente.

Vivimos una etapa transitoria en nuestras actividades montañosas, habrá que aguardar pacientemente a que la tormenta termine, el cielo vuelva a mostrarse azul y podamos emprender proyectos más lejanos. También para eso tenemos propuestas en este número. Mientras tanto, caminemos sin prisa, descubriendo los caminos, las vías y los recursos naturales que tenemos cerca de casa y aprendamos a preservarlos. Nos toca cuidar lo nuestro, empecemos por conocerlo y quererlo.